

TXIKITTO

129

2012ko ekaina

San Juan ate joka: **BADATOSZ** **JAIK**





Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkartea
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
Tel: 943 206776.

Erredakzio kontseilua

Ekhi Belar, Koldo Mitxelena
eta Eibarko ikastetxeetako ordezkariak.

Administrazioa

Marisol Uriarte.

Erredakzioa eta maketazioa

Ekhi Belar eta Koldo Mitxelena.

Argazkiak

...eta kitto! aldizkariko argazki artxiboa,
Ekhi Belar eta Koldo Mitxelena.

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96

Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak
eta Gipuzkoako Foru Aldundiak
diruz lagundutako argitalpena



KULTURA SAILA



Gipuzkoako
Foru Aldundia




Otsailaren 23an **URKIZU** eskolako 5. mailako ikasleek esku pilotan jolastera joan ziren Ipurua kiroldegira. Martxoaren 9an, 4 eta 5 urteko haurrek Joseba Ramirezen "Bakartxoren zapatilak" txotxongilo saioa ikusteko aukera izan zuten. Hilaren 22an Urkizuko 1.go eta 2. mailako ikasleek "Izenaduba" (Olentzeroren etxea) ikustera joan ziren Mungia. Martxoaren 26an 4. mailako ikasleek Udalak antolatzen dituen Motibazio Saioretan "Txan Magoa" ikusteko aukera izan zuten.

Kaixo lagunok!!! Kurtso amaiera honetan ditugun azkenengo albisteak kontatuko dizkizuegu **LA SALLE ISASI**ko guztiok. Gure 1. go mailako artistek "Baserriko Mamua" antzeztu zuten bai eskolan eta baita unibertsitatean ere ekainaren 4an. Hilaren 1ean Musika Eskolako bisita izan genuen eta euren musikaz gozatu genuen. Gainera kurtso amaiera hau txangoz beteta izan dugu. 2 eta 3 urtekoak Urkiolan izan ziren ekainaren 7an, eta 4 eta 5 urtekoek egunpasa egin zuten ekainaren 5ean eta 6an. 8an, berriz, 1. mailakoak Basondon izan ziren, bertako animaliak ezagutzen. Eta 13an 5. mailakoak Donostiara joan ziren. 6. mailakoak Agenda 21-aren inguruan "Gure herrietako ametsa" lehiaketa irabazi zuten! **Zorionak!** Kurtsoa ezinhobeto amaitzeko, gure ikastetxean ekainaren 20an **jaialdia** ospatuko dugu: bertan gure abeslari, dantzari, antzezle etab. ikusteko aukera izango duzue. Hori da dena, opor ostean berriro bueltatuko gara zuekin elkartzeko! Ondo pasa oporrak La Salle Isasikoen partetik!



Kaixo lagunok! Azken txanpan ari gara Urkiko **ARRATEKO ANDRA MARI** ikastetxean. Dagoeneko gauza mordo egin dugu, eta oraindik gelditzen zaizkigunak: dibertigarrienak izango dira. Hona hemen gure eskolako hiruhileko honetako berriak: 1., 2., 3. eta 4. mailakoak igerilekuan izan dira, batzuk apirilean eta besteak maiatzean. Ederto prestatuko ziren uda honetan gozatzeko! Tarte horretan 5 urtekoak eta 1. eta 2. mailakoak Lurraskan egon dira, oso ondo pasatuz, eta pozik etorri ziren. Guzti honekin batera, kontsumo tailerretan hartu genuen parte eskolako guztiok. 5. eta 6. mailakoak Madariaga dorretxean izan ziren eta inguru polit hura ezagutu zuten. 1. eta 2. mailakoak, berriz, Debanaturara irteera egin zuten. Drogamenpekotasunen inguruan egin dute lan 6. mailakoek, eta 2. eta 3. ziklokoek "ezberdintasunean bizi" esperimintatu dute: benetan interesgarria, beste batzuen egoera bizitzea hobeto ulertzeko. Eskolako jaialdia ere izan genuen maiatzaren 16an: eskolako aretoa leporaino bete zen eta bertan agertu ziren guztiok gure emanaldiekin gozatu zuten. 5. eta 6. mailakoek bertso-jaialdian parte hartu zuten, zuetako batzuekin batera. Ospakizun polita osatu genuen, ezta? Ekaineko ekintzak besterik ez zaizkigu falta. 2. eta 3. ziklokoak Guggenheimera joango dira. Eskolako guztiak Arratera joango gara eta ikasturte hau ondo amaitzeko eta jaiari hasiera hobea emateko, 22an txikienek danborrada joko dute eta gero urtean zehar ikasitako euskal abestiekin emanaldi txikia egingo dugu. Ondo pasa oporrak eta hurrengora arte!



DENBORAPASAK

Sopa letra:




ANIMALIAK

T	K	N	I	T	D	M	P	I	R
X	Z	A	L	D	I	A	T	G	X
A	K	E	T	S	G	E	U	E	K
K	Z	L	L	U	O	R	U	L	A
U	M	E	E	O	A	L	N	A	Z
R	P	L	R	R	X	Z	T	D	A
R	E	A	I	I	L	N	X	H	L
A	R	B	E	H	A	E	I	O	A
K	Z	A	L	D	O	E	A	G	L
B	E	H	I	A	U	N	E	D	O
F	A	E	T	N	A	F	E	L	E


Zaldia
 Untxia
 Azeria
 Behia
 Elefantea
 Igela
 Katua
 Trakurra
 Erlea

Lucia Urreta

Azmatu Berakatak




deire Ayala



1. Berdea
2. Horia
3. Laranja
4. Urdina
5. Larrosa
6. Griso
7. Gorria

Aurkitu animalia hauen izenak

- * Lechia
- * Katua
- * defantea
- * Txakurra
- * Tximiñoa
- * Arraina



TXISTEAK

Gizon bat txori-dendara sartu eta loro elebiduna eskatu zuen.

Dendariak hanka bakoitzean soka bana zuen bat erakutsi zion.

- *Ezkerreko sokatik tira eginez gero, euskaraz hitz egingo dizu -azaldu zion saltzaileak- eta eskuinekotik tira eginez gero, katalanez.*

- *Aizu, eta bietatik batera tira egiten badiot? -galdetu zion bezeroak.*

- *Zozoa halakoa! Lurrera joango naiz mokoaz aurrera!* -erantzun zion loroak.

CARLITOU

Bi emakume elkartu dira, eta batak besteari:

- *Nire senarra aingeru bat da.*

- *Hau zortea!* - erantzuten dio besteak- *Nirea oraindik bizirik dago.*

ANDER

Gizon bat farmazia batera sartu da eta galdetu du:

- *Ba al daukazue azido azetil salizilikoa?*

- *Aspirina esan nahi duzu, ez?*

- *A!! Kontxo! Izena ahaztuta neukan.*

AITOR

Gizon bat medikuarengana joan zen eta esan zion:

- *Mediku jauna, arazo bat daukat. Nire puzkarrek ez dute usainik.*

- *Hori ez da posible. Bota ezazu bat oraintxe bertan!*

- *PPPPPPPPPPPPPPPPPP!*

- *Hori larria da. Ebakuntza behar duzu.*

- *Ipurdian?*

- *Ez, gizona, sudurrean.*

NAROA



Lelo bat izozki denda batean sartu da eta esan dio izozkigileari:

- *Emango didazu izozki bat, mesedez?*

- *Zer zapozekoa?*

- *Berdin zait, erori egingo zait.*

SALMA

Indio bat tabernan sartu eta esan dio tabernariari:

- *Zuk whisky gogorra eman, bestela indioak ez ordaindu.*

Gizonak whisky gogorra eman dio eta indioak:

- *Whisky hau ez da gogorra. Indioak ez ordaindu.*

Hurrengo egunean berdin gertatu zen eta, hirugarren egunean, indiaa azaldu zenean berriro esan zion:

- *Whisky gogorra eman, bestela indioak ez ordaindu.*

Tabernariak whiskyarekin batera bolbora hautsa bota dio.

Hurrengo egunean indiaa sartu da esanez:

- *Whisky arinagoa eman, atzo indioak puzkerra bota eta zaldia hil.*

AIMAN





Behin batean, maisuak galdetu zion Jaimitori:

- Zer da kanibal bat?

- Ez dakit -erantzun zion Jaimitok

Maisuak, errazteko asmoz, galdetu zion:

- Zu, zure gurasoak jaten badituzu, zer zara?

- Bada, umezurtza.

SABER

Behin gaileta batek, mendian zebilela, hala esan zuen:

- Gaileta bat naiz.

Ehiztari bat agertu zen eta eskopetarekin zulo bat egin zion.

Hortik aurrera, honela zioen:

- "Erroskila" bat naiz.

IZARO

Zine zuzendariak aktoreari basoan kokatutako eszena bat azaldu dio:

- Zuk ziztu bizian egin behar duzu lasterka.

Atzetik tigrea joango zaizu, baina ez zaitu harrapatu behar. Ulertu al duzu?

- Bai, nik bai, baina tigreak ere ulertu al du?

MARKEL

Amak esan zion Jaimitori:

- Etortzen naizenean umea sehaskan egon behar da, oilaskoa suan, urdaiazpiko eta gazta ogitartekoa prest, eta lurra ur eta xaboiarekin garbituta.

Ama joan zenean Jaimitok umea laban sartu zuen, ogitartekoa ur eta xaboiarekin garbitu, oilaskoa sehaskan sartu, eta lurra gazta eta urdaiazpikoarekin garbitu zuen.

Ama etorri zenean esan zion:

- Zer egin duzu, Jaimito!!!!

- Shhhhh! Oilaskoa lo dago-eta!

LEIRE SAIZ



Amaiera bariko jaia Amaiera b

DULTZAINA HOTSAK ENTZUTEN DIRA HERRIAN. ORAINDIK EZ DIRA SANJUANAK HASI, BAINA KALEETAN ARNASTEN DEN GIROAK FESTA ZAPOREA DAUKA. HERRITARRAK PREST DAUDE JAIRAKO, NAGUSIAK ZEIN UMEAK, DENEK ONDO PASATZEKO GOGOIA BAITAUKATE. PIZTU DADILA TXAPLIGOAREN SUA!

Sanjuanei 23an ematen zaie hasiera ofiziala, San Juan egunaren bezperan, baina eibartarrok ezin dugu ordua arte itxaron eta aurretik ere festan murgiltzeko ekintzak antolatzen ditugu. Ia hilabete osoa hartzen duen egitaraua prestatu du Udalak aurten ere, inor ez dadin geratu jairako gogo gehiagorekin. Hala ere, hilaren 23a zenbat eta hurbilago, orduan eta ekintza gehiago.



Ekainaren **20an**, eguaztena, adibidez, Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako talde modernoek kontzertua egongo da Txaltxa Zelaian, 17.00etatik 20.00etara. **21ean** umeak izango dira protagonista nagusiak; izan ere, egunean zehar, ferriako atrakzioen prezioa 0,70 eurokoa izango da.

17.00etatik 20.00etara umeendako puzgarriak eta zezen mekanikoa egongo dira Untzagan; eta, musikarekin jarraitzeko, Arno DJak umeentzako berbena egingo du 18.00etatik 20.30etara. Hurrengo egunean, **22an**, Hortzmuga konpainiak 'Libertia' umeentzako antzerkia eskainiko du Untzagan, 19.00etan hasita.



Bariko jaia Amaiera bariko jaia



Dultzaineroak eta txupinazoa

Aurreko gutzia gutxi iruditu bazaizue, hila-ren **23az** geroztik festa gogoia asetzeko aukera ugari izango dituzue. Dena, noski, Lizarrako Dultzaineroen harrera eta txupinazoarekin hasiko da. 13.00etan iritsiko dira dultzaineroak Estaziño kalera eta handik kalejira egingo dute udaletxeraino. Han, 13.30etan, pregoia irakurri eta txupinazoa botako da. Hortik aurrera... FESTA!

Arratsaldean Debako erraldoi eta buruhandien kalejira egingo da Urkizutik 19.00etan eta, ordu erdi geroago, Trapu Zaharra antzerki taldeak 'Vuelta&Vuelta' saioa eskainiko du Untzagan. 23.30etan, berriz, San Juan sua pizteko ordua iritsiko da ...eta kitto! Euskara Elkartearen es-

kutik. 00.00etan, San Juan Kantua abestu eta, jarraian, Danborradaren Alardea egingo da.

San Juan eguna ere, **24a**, ekintzaz beterik dator. 19.00etan Umeen Danborrada hasiko da Urkizutik eta 00.00etan suzko erroberak egongo dira Untzagan. **25ean**, astelehenean, 'Munstro koloreak' izeneko umeendako parkea egingo da Untzagan, 18.00etatik aurrera. 19.00etan Patxin eta Potxin taldeak 'Ohitura onak' saioa eskainiko du Untzagan eta, eguna kolorez beterik amaitzeko, Astondoaren eskutik suzko erroberak egongo dira 23.30etan. Ondo pasatzeko aukera mordoa!!!



Eguzkia

Beroa da errege urte sasoi honetan. Kanpoan eguzkia da nagusia; baina orain etxean ere horrela izan daiteke!



MATERIALA:



- Kartoizko plater txiki bat.
- Tissue-paper horia.
- Margo horia eta pintzela.
- Kola edo zinta itsasgarria.
- Haria.
- EVA goma beltza.
- Begi artifizialak (kartulinarekin egin daitezke).



NOLA EGIN:

- 1- Lan egingo duzun mahaia egunkari-paperarekin estali, ez zikintzeko.
- 2- Kartoizko platera buelta emanda kokatu. Margo horiarekin plateraren oinarria margotu.
- 3- Margoa sikatzen lagatzen duzun bitartean, alde bakoitzean 8 zm dituzten tissue-paperaren 30 bat zati moztu itzazu.
- 4- Karratutxoak banan-bana hartu eta kono txiki bat egin euren ertzak kolarekin itsatsiz.
- 5- Plateraren margoa lehortzen denean, buelta eman ertzak tissue-paperarekin itsasteko. Zirkunferentzia osoa bete konoak elkarrekin ondo kokatuz, paperik gabeko espaziorik ez geratzeko.
- 6- Plateraren erdian haria itsatsi zintarekin ertz bakoitzean, eskegi ahal izateko.
- 7- Platerari buelta eman eguzkiari aurpegi alaia emateko. Ahoarendako irribarrea moztu EVA goman eta plateraren behe aldean itsatsi.

Begiak kokatu eta errotulagailuarekin sudur txikia marraztu. Nahi beste detaile txertatu.



BELE BELTZA ETA AZERIA

Mendia. Mendian tontor bat.
Tontorrean zuhaitz bat.
Zuhaitzean adar bat.
Adarrean bele beltz bat. Bele
beltza pozik eta harro, mokoan
gazta zati eder bat hartuta.
Ezagutzen duzue bele beltza? Bai,
ezta? Eta azeria? Azeria ere bai,
jakina!

Kontua da gaztak usain ederra
zuela eta azeriak usaimen aparta.
Sudur zuloak dardarka hasi
zitzaizkion eta berehala aurkitu

zuen gazta zatia. Zoritxarrez belearen mokoan zegoen. Azeriak, halere,
laster asmatu zuen gazta hura bereganatzeko era.

- Egunon bele jauna -hasi zitzaion koipekeriaz-. Ikusmira ederra dago hemen,
ezta? Eta eguraldia ere bikaina.

Beleak baietz esan zion burua mugituz.

Azeriak hitz eginarazi nahi zion, gazta eror zedin:

- Polita zara, gero! Zure ahotsa zure itxuraren parekoa balitz, arranoak ere
ez lizuke itzalik egingo. Zeu izango zinateke txoririk ederrena, zeruetako
erregea.

Belea pozik! Lumak harro-harro jarri zitzaizkion.


Azeria berean tinko:

- Gustora entzungo nuke ba zure kantua. Kantari trebearen itxura hartzen
dizut.

Hainbeste laudorio entzunda, bele beltzari paparra puztu egin zitzaion. Hain
zegoen harrotuta, ze kantuan hasi zen. Eta gazta zatia lurrera noski.

- Ai, inuzentea! -pentsatu zuen azeriak-. Harro ganorabakoa! Nire hitz
ustelez bete duzu barrena, baina sabelik ez duzu beteko.

Azeri azkarrak jan zuen gazta zati eder hura, bai.



Eskatu aitari edo
amari ipuin hau gaur
gauean kontatzeko.
MEREZI DU...



OSAGAIAK:

**8 txapelarendako
(16 zirkulu,
8 semizirkulu)**

- Arrautza handien zuringo bi.
- Glass-azukrearen kikara bat.
- 6 koilarakada irin.
- Koilarakada 2 kakao-hauts.
- Gatz pixka bat.
- Gatz bariko urtutako gurinaren koilarakada 2 eta erdi.
- Koilarakada 2 esne-gain.
- Koilarakada erdi bainila estraktu puru.
- 60 g. urtutako txokolate mingots.
- 8 Lacasito.
- Izozkia.

PAUSOAK:

1- Gaileten masa egin: Labea 200°C-ra berotu. Arrautza zuringoak eta azukrea irabiagailu elektrikoarekin nahastu 30 segunduz. Irina, kakaoa eta gatz nahastu. Gurina, esne-gaina eta bainila nahastu 30 segunduz.

2- Gailetak laberatu: Plastikozko tapak edo kartulinak erabiliz, 6,5 zm-ko zirkulua eta luzeran 11,5 zm-ko zirkulu-erdia duten zatiak moztu. Ingurua plantila bezala erabili, masa labean sartzeko paperaren gainean ipini eta gailetak laberitzen laga solidifikatu arte, 6-7 minutu.

3- Konoak egin: Zirkuluerdiak bero daudenean atera. Gailetaren ertzak gora altxatu eta azkar elkartu konoak egiteko, gogortu arte eutsiz. Hiru aldiz gehiago errepikatu geratzen den masarekin.

4- Txapelak prestatu: Konoak txokolate urtuan sartu oinarriaren inguruan geruza sortzeko. Konoak 8 gailetaren gainean kokatu eta txapelen txokolate-banda bakoitzean Lacasito bana ipini. Izozkailuan sartu solidifikatu arte (10etik 20 minutura). Urtutako txokolatearekin aurpegiak marraztu beste 8 gailetetan. Havek ere izozkailuan sartu 10etik 20 minutura. Izozki-bolak egin eta euren oinarriak pixka bat moztu gaileten gainean kokatzeko.

Txokolatez inguraturiko gaileten gainean kokatu eta txapelekin estali.



SORGIN

TXAPELAK

INTERNETEN...



eitb.com/eu/hiru3

Marrazki bizidunak gustoko dituzu, baina aurreko egunean ezin izan zenuen atal berria ikusi? Trankil egon, internetek aukera emango dizu-eta. Bren webgune honetan euskal telebista publikoan eskaintzen dituzten marrazki bizidun eta programa guztiak baitaude ikusgai. Baina ez hori bakarrik; izan ere, eskulanak, jokoak eta abestiak ere aurki daitezkeelako bertan. Gainera, hainbat zozketatan parte hartzeko aukera ematen da.

EIT-

argia.com/ihesi

Udako oporrak ate-joka daude eta horrek esan nahi du aisialdirako inoiz baino denbora gehiago izango duzuela hilabete hauetan. Denbora libre asko bai, baina zer egin denbora horretan? Webgune honek aukera ugari eskainiko dizkizu zure aisialdiari ahalik eta etekinik gehiena ateratzeko. Irteera nora egin, non jan, zer ikusi, non lo egin... denetariko aukerak eskaintzen ditu Argiaren orrialde honek. Euskal Herrian ibiltzeko oinarrizkoa!



ARIES

Amantala kendu, airean bota eta korrika irtengo zara kalera. Iritsi dira udako oporrak! Orain disfrutatuz ezazu ahal bezain beste.

TAURUS

Ez duzu modu onenean amaitu kurtsoa, baina oporretan egun bi egin ostean ahaztu egingo duzu hori. Orain irrifarrea izango duzu ahoan.

GEMINIS

Liburuak albo batera laga dituzu, baina egunero ikasiko duzu gauza berri bat. Udatik bueltan asko handituko da zure jakintasuna.

CANCER

Ezin duzu dena diruarekin erosi, eta ondo ikusiko duzu hori datozen asteotan. Bizitza dirua baino askoz ere aberatsagoa da.

LEO

Zure lagun-sarea handituko duzu udaran. Gainera, lagun berri horien artean, laguna baino gehiago izango den bat egongo da.

VIRGO

Atzera begirada bota eta kurtsoa zeinen aberasgarria izan den konturatuko zara. Orain atseden hartzeko ordua ailegatu da.

LIBRA

Pozez zorutzen egongo zara egun hauetan eta bereziki ondo pasatuko duzu Sanjuanetan. Uda ederra ere daukazu aurretik.

SCORPIUS

Oporren hasiera ez da zuk esperotako bezain pozgarria izango, baina asteak aurrera joan ahala dena hobera joango da. Seguru.

SAGITARIUS

Mendian, hondartzan, hirian... zauden lekuan zaudela, unezogarriak pasako dituzu uda honetan. Maite duzun jendareekin gainera.

CAPRICORNIUS

Eguzkia hartu behar baduzu, txapela jarri, krema eman eta ur asko edan. Kontuan hartu aholku hauek; bestela, komeriak!

ACUARIUS

Baliteke hainbat gauza txarto egitea, baina orokorrean zuzen jokatzen duzu. Gutxienez, zintzotasunez tratatzen dituzu besteak.

PISCIS

Konturatzen zarenerako, oporrak atzean lagako dituzu. Señale ona izango da hori, oso ondo pasako dituzulako egunak.

Nagusixen eta umien artian desbardinttasun haundixak izaten dirala pentsatzen dogu, baiña zer gertauko litzake galdera bardiña egitten badetsagu nagusixari eta umiari?
Horrenbesteko aldia egongo ei da?

HARITZ BISKERT, 7 URTE

Oso ondo pasatuko dot, hondartzara juango naiz asko, baiña hartu eta jolasteko aprobeztatuko dogu. Baiña urte bakotxian leku desberdiñera juaten gara, hondartza ingurura, baiña ez dogu errepikatzen.

MIKEL BISKERT, 43 URTE

Hondartzara juaten giñan, Debara. Jolasteko aprobeztatzen genduan eta, bai Eibarren edo bai Deban, kalian pasatzen genduan denbora asko. Orduan denporan kotxe gitxiago ibiltzen zan eta dana zan lasaixagua guretzako.



Zelakua da/zan zure oporraldixa?


JONE LOPEZ, 12 URTE

Frantziara goiaz aurten; Eurodisney eta Obelix-en parkia ezagutzeko aukeria eukiko dogu. Lorienten be astebete pasauko dogu. Bisittak egittia asko gustatzen jata eta nahixago dot bisittak egitteko oporraldixa hondartzan egotia baiño.

JUAN CRUZ LOPEZ, 55 URTE

Gure oporraldixa etxekuen arteko oporraldixa izaten zan. Famelixako lehengusuak, gurasuak eta abar batzen giñan Trapagako etxian. Jolasian pasatzen genduan eguna, Eibarren egongo bagiña moduan, baiña herrixan. Gitxittan juaten giñan hondartzara, funikularran ibiltzera juaten giñan eta gauza txikixekin pasatzen genduan eguna.





BOST IZARRAK

Zenbait nazionalitateko neska-mutilak dira. Ikastetxeak sekula izan duen kriolarien belaunaldirik onena osatzen dute eta lagun banaezinak dira. Txapelketetan lehiatu behar izateaz gain, elkarrekin misterio arriskutsuak eta askotarikoak argitu beharko dituzte adimena eta adorea erabiltza.



A ELKARTEA - ILUNPEETAKO ARGIAHULA

Jasper. 15 urte. Luxezka, zurbila, begiak eta ilea ikatza bezain beltzak. Elkarteko praktiketako agentea eta Bigarren Hezkuntzako ikaslea (denbora duenean). Magia egiten du eta gaita jotzen du rock talde batean. Dragoiak eta ziegak hitz-joko kaskarra eta Ombe, praktiketako bere kidearen zale da. Bere misioa: banpiro narkotrafikatzaile sare bat desegitea.



FANNYREN ALDAKETA

Erregaliz taldea lau neskek osatzen dute. Leo, Maya, Dotte eta Fanny dute izena eta lagun minak dira. Oso ondo pasatzen dute elkarrekin, baina batzuetan egoera zailei aurre egin behar izaten diete. Hala ere, onik aterako dira beti beren adoreari eta adimenari esker. Erregalitzarrak guztiz harrutuko dira Fannyk bere itxura aldatu nahi duela adierazten dienean. Izan ere, mutiko itxura aldatu nahi duela adierazten dienean. Izan ere, mutiko itxura omen duelako ziria sartzen diotela eta, neka-neka eginda dagoela.



MAHATSAK ETA NESKATILAK ONDU ZIRENEKO UDA

Udako oporretan sartu dira lau neskatila eta abentura ugari biziko dituzte. Bizitzaren sorrera eta heriotza gertutik ezagutuko dute, baita ezezaguna den jendea bihotz zabalekoa izan daitekeela ere. Mutil guztiak ez direla txotxoloak, eta beste zenbait gauza interesgarri. Uda amaitzerakoan, gure neskatilak, mahatsei gertatzen zaien bezala, helduagoak izango dira.



ERRETRATU FLANDESTARRAREN KASU BITXIA


Voltaire kaleko detektibeek arte galeria batean lapurreta izan dela jakin dute. Baina erretratu flandestar txiki bat besterik ez dute lapurtu. Ikerketari ekin eta, inoren susmorik piztu gabe, koadroaren markoak oso gauza baliotsua daukela jakingo dute. Horren ondorioz, delitu larriak gertatzen hasiko dira.



SUZKO TRONUA


Antzinako Egiptoko jainkoak mundu modernoan askatu zituztenetik, Carter Kane eta bere arreba Sadie istiluetan sartuta ibili dira etengabe. Bizitzaren Etxeko ondorengoak direla-eta, Kanetarrek badituzte erabil ditzaketen botere batzuk; baina jainko maltzurak ez diete astirik eman mago gazteen entrenamendu-tokia den Brooklyngo Etxean beren gaitasun berrietan trebatzeko.

Egun batean neska bat konpika egitera
irten zen Uhera..




Aste batzuetara neska Atletismoaan parte
hartzen du

ATLETISHOA



Hurrengo egunean berririo irten zen
kerrika egitera bere auzotik.



Astearen neska inabazti egiten du
eta lehenengo postuan gelditzen da.

